

KONTROL MOZIOA

Turismorako euskarrietan euskararen erabilera dela-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko martxoaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urriaren 29an Udalbatzak onartu zuen Udal Gobernuari eskatzea berma zezala euskararen erabilera normalizatzeko bidean aurrera-urratsak emateari begira, eta indarrean dagoen “Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Plangintzaldia (2013-2017)” delakoaren arau eta jarraibideen norabidea kontuan hartuz, 2016ko testuinguruan egiten diren informazio idatzietan, eta hizkuntza aniztasuna erabili behar denean -hau da, euskara, gaztelera eta beste kanpo hizkuntzak ere- euskara ez dela kaltetua izango.

Erabaki hori, data bistan, testuinguru jakin batean eman zen: 2016 hasteko gero eta denbora gutxiago falta zenean, euskara eta gaztelaniaren erabilerari dagozkion hizkuntza-irizpideen erabileran egoera desagokiak suertatu ziren hizkuntza gehiagoren artean erabiltzerakoan; zehazki turismoko panel batzuetan.

Kontrol-mozioaren ondorioz, batetik, panelak aldarazi zituen Udal Gobernuak. Bestetik, kontrol-mozioaren eztabaidan zinegotzi ordezkariak gaiari heltzeko asmoa agertu zuenez, zailtasunak eta konplexutasunak aitorturik, talde honetatik eskua luzatu genuen, lan horretan laguntzeko asmoz; beti ere, inizatiba gobernuari dagokiola argi izanda. Eleaniztasunean erabilera egokiak egiteko zailtasuna, eta zailtasun hori gainditzeko hausnarketak egin beharra eta soluziobideak aurkitzeko urgentzia konpartitua, Udal Gobernuak martxoan Euskararen Kontseilu Sektorialaren Batzorde Iraunkorrean, gaia jorratzeko lan talde proposamena egin zuen, Kontseiluak egoki ikusi eta dagoeneko taldea elkartu eta lanean jarri da. Lehen bilkuran zailtasun handienak turismo inguruan zirela agertu zen, baina haiek gainditzeko prestutasuna eta abiatzeko zorua egun indarrean ditugun arau eta irizpideak izango zirela adierazi zen.

Aldi berean, hilabete hauetan Udal Gobernuak ekimen ugari jarri ditu abian hizkuntza irizpideak Udaleko sail eta erakundeetan ezagutarazteko, bide elektronikoen zain paperezkoak erabilia. Berriki, ordea, kexu potoloa jaso dugu: arestian aipatu

diren paneletan baztertu zen mapa berbera (Udaleko hizkuntza irizpideak betetzen ez zituelako), Turismoko web orriaren bidez banatzen da. Web orriak, noski, hainbat hizkuntza hautatzeko aukera badu: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, japoniera eta mapak ere hainbat hizkuntzatan azalduko dira, hizkuntzaren hautuaren arabera. Urte hasieran Udal Gobernuak zuzendu zuen mapa egina dagoenez gero, ulertezina da oraindik ere web orriaren eskura ez egotea.

Horiek horrela, hauxe da gure **MOZIOA**:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Udalbatzak urriaren 29an aho batez onartu zuen kontrol-mozioa betetzeko, eta, ondorioz, bermatuko duela *“informazio idatzietan, eta hizkuntza aniztasuna erabili behar denean (hau da, euskara, gaztelera eta beste kanpo hizkuntzak ere) euskara ez dela kaltetua izango”*.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ziurtatzeko sistema digitalek ematen dituzten erraztasunak profitatuz, web orrien bidez eskuratzen diren informazio idatziak, egin den hizkuntza-hautuaren arabera izango direla.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, sinatua dagoen lankidetzaren hitzarmena baliatuta, Donostia Turismo SA sozietateko euskararen erabilera normalizatzeko Plana garatu eta jarraipena egiteko, hizkuntza-irizpideak bermatzeko neurriak hartuz.

Donostian, 2016ko uztailaren 15ean

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia